



# EGONALDI-DEIALDIA: KOMISARIOTZA- PROIEKTUA



## 1. AURKEZPENA

Tabakalerak, sorkuntza-zentroa izanik, egonaldi-programa bat dauka artistei, sortzaileei eta kultura-eragileei laguntzeko. Laguntza-programa honek helburu bikoitza dauka: bata, ekoizpen-prozesuei laguntzea, eta bestea, maila kontzeptuarean eta ekoizpen mailan laguntza ematea.

Programa honen bidez eta Tabakalera duden beste programa batzuen bidez, espazio bat sortu nahi da eragileak eta haien proiektuak Tabakalera ingurunean batera bizi daitezen, eta, horrela, egoiliarren eta gonbidatutako eragileen arteko balizko lankidetzak ahalbidetzeko.

## 2. XEDEA

Deialdi honen helburua komisarioei **erakusketa-proiektu bat garatzen laguntzea da**. Proiektu hori 2025. urtearen hasieran egingo da, Tabakalera 2. erakusketa-aretoan.

Egonaldiak **hilabeteko iraupena** izango du, eta espazioa, testuingurua eta denbora eskainiko ditu erakusketa-formatuko proiektu kuratoriala garatzeko. Hautatutako komisarioak proposamena gorpuztu ahal izango du, **2024ko apiriletik maiatzera** bitarteko egonaldian.

Deialdira aurkezten diren proiektu guztien artean **proposamen bat hautatuko da**.

## 3. HAUTAGAIK/PARTE-HARTZAILEAK

Deialdian parte hartu ahal izango dute euskal testuinguru artistikoari lotuta dauden eta haren sare artistiko eta kulturalari laguntzen dioten pertsona fisiko edo juridiko guztiek.

Aurkeztutako proiektuan, gehienez ere, artista, sortzaile eta/edo kultura-eragile batek parte hartu beharko dute; pertsona horiek euskal testuinguru artistikoari lotuta egon eta testuinguru horren ehun artistiko eta kulturalari lagundu behar diote.

Pertsona horiek, arte garaikidearen sektorean, izaera artistikoko edo kuradoretzako proiektuak garatzearekin lotutako lanak egin behar dituzte aldian-aldian, partzialki edo eskusiboki, bai beren jarduera esparru horretan egiten dutelako, bai esparru horretan ibilbide profesional bat hasi nahi dutelako.

Era berean, pertsona fisiko edo juridiko batzuk batera aurkeztu ahal izango dira deialdira, haien artean inolako harremanik formalizatu beharrik gabe; kasu horretan, 6. klausulako azken paragrafoan xedatutakoa aplikatu ahal izango da.



#### 4. BATZORDEA ETA HAUTAKETA-IRIZPIDEAK

Aurkeztutako proiektuak sektoreko profesionalek eta Tabakalerako langileek osatutako batzorde batek baloratuko ditu, honako irizpide hauen arabera:

- Berrikuntza eta originaltasuna, bai planteamendu kontzeptualean, bai proiektuaren formalizazioan.
- Proiektuaren kalitatea eta sormena.
- Proiektuaren koherentzia eta hautagaiak ordura arte izan duen ibilbidearekiko koherentzia.
- Proiektuaren egokitasuna, Tabakalerak abian jarri dituen lan- eta interes-ildoen eta Tabakalerako erakusketa-programaren arabera.
- Tabakalerak dituen erakusketa-bitarteko eta -espazioen bideragarritasuna eta egokitzapen-maila.
- Bereziki baloratuko da proiektuak eta hautagaiek testuinguruari laguntzeko asmoa, eta halaber, tokiko artistak eta eragileak proiektuan eta/edo lan-saioetan eta erakusketarekin lotutako balizko programa publiko batean inplikatzeko borondatea.

Batzordeak deialdia bete gabe utzi ahal izango du, baldin eta irizten badio aurkeztutako proiektuek ez dauzkatela egonaldirako eta erakusketarako behar diren ezaugarriak edo merezimenduak. Gainera, egonaldi horretara bideratutako baliabideak deialdi honetako beste egonaldi mota bati edo Tabakaleraren beste proiektu batzuei esleitu ahal izango dizkie.

Ikusi aretoaren oinplanoa eta aurretiko bista I. eranskinean.

#### 5. FASEAK

Deialdi honek bi fase ditu:

- Lehenengoan, egonaldia bera izango da; egonaldiaren zuzkidura 6. klausulan deskribatzen da.
- Bigarrenean, proposatutako erakusketa-proiektua egingo da, eta, horretarako, komisarioak zerbitzuak emango dizkio Tabakalerari, 7. klausulan aurreikusitakoaren arabera.

#### 6. EGONALDIRAKO ZUZKIDURA

Egonaldia Donostiako Tabakalerako instalazioetan izango da. Programa horren barruan, prestazio hauek eskaintzen dira:

- i. Bidaia eta ostatua:
  - a. i. aukera:
    - i. Joan-etorriko bidaia bat, bizitokitik edo egonaldiaren aurretik dagoen lekutik, adjudikaziodunak hala nahi izanez gero.
    - ii. Logela bikoitza banako batentzat, komuna, lanerako toki txiki bat eta wifi konexioa barne; sukalde eta egongelaren erabilera partekatua Eremu



komun horretarako sarbidea zentroak ezarritako erabilera-arauek eta indarrean den osasun-egoerak arautu ahal izango dute.

- b. 2. aukera: egonaldiaren hilabete bakoitzeko 500 euroko laguntza gehienez, garraio-kontzeptu gisa.
2. 1.000 € garbi egonaldiaren hilabete bakoitzeko, dieta eta mantenu gisa. Dirua txeki izendunaren bidez entregatuko da. Kopuru horri zerga-atxikipena aplikatuko zaio, egoiliar bakoitzaren egoera fiskalaren arabera. Horretarako, dagokion dokumentazioa eskatuko da (036 eredia Espainian bizi direnentzat, eta zerga-egoitzaren ziurtagiria atzerrian bizi direnentzat).
3. Lan-estudioa Tabakalerako artisten espazioan: oinarritzko altzariak, korrante elektrikoaren hargunea eta argiztapena.
4. Sarbidea office-ra eta espazio komunetara.
5. Sarbidea Tabakalerako liburutegiko sorkuntza espezializatuari buruzko funtsetara eta Medialabeko baliabideetara.
6. Sarbidea irudi eta soinuaren edizioko estudioetara, praktika eszenikoetarako plato edo espazioetara eta ikus-entzunezko baliabideetara maileguan.
7. Tabakalerako lantaldearen baliabide teknikoak eta laguntza, beharizanen eta erabilgarritasunaren arabera.
8. Laguntza kontzeptuala ematea proiektuaren garapenean, eta, egoiliarrak hala eskatzen badu, laguntza ematea testuinguruko eragile eta proiektu desberdinak sartzeko.
9. 10.000€ partida bat (zergak eta atxikipenak kenduta) ekoizpen artistikoko gastuetarako, horrela banatuta: 4.000 € ordainsari gisa artistarentzat edo erakusketan parte hartzen duenarentzat, 6.000€ obra ekoizteko. Diru-kopuru hori Tabakalerak kudeatuko du, hautagaiarekin aurrekontua onartu ondoren.

**Argitzeko oharra:** hautatutako proiektua kolektibo batek aurkeztu badu (hainbat pertsona fisiko edo juridiko, haien arteko harremana, 3. klausulako bigarren paragrafoan aipatzen dena, formalizatu beharrik gabe), aipatutako prestazioak kolektibo horrek izendatzen duen pertsona fisikoari esleituko zaizkio, edo kolektiboak berak eskatuta eta Tabakalerak aurretik erabaki diskrezionala hartuta, egonaldiaren prestazioen zenbatekoa zehaztuz (ahal den neurrian) kolektiboko kide bati, batzuei edo guztiei prestazio horietako batzuk esleituko zaizkio, guztizko balio baliokidean. Orduan, eta jada finkatutako aurrekontuan oinarrituta, egonaldiaren dieten, ostatuaren eta iraupenaren doikuntza egingo da. Oinarrietan ezarritako zenbatekoa ez da inola ere biderkatuko proposamena igortzen duten pertsonen kopuruarekin, salbuespen gisa, bigarren pertsona baten ostatu-gastuak bermatu ahal izango dira.

## 7. ZERBITZUAK EMATEA

Hautatutako erakusketa-proiektua 2025. urtearen hasieran ekoiztuko da Tabakalera, eta, horretarako, hautatutako komisarioak ekoizpen-zerbitzuak emango ditu. Erakusketaren ekoizpen osoaren barruan sartzen dira proiektua aretoan gauzatzeko beharrezkoak diren gastu guztiak: obraren ekoizpena, garraioa, muntaketa, aretoko bitartekaritza, parte-hartzaileen joan-etorriak, ostatua eta dietak eta/edo erakusketarekin lotutako jarduera paraleloak. Tabakalera produkzio horren inguruan sortutako harreman juridiko guztien titularra izango da, eta berak egingo ditu ordainketak; hala ere, komisarioak harreman juridiko horien kudeaketan eta haietatik eratortzen diren jardueretan lagundu ahal izango du.

Ekoizpen-zerbitzu horiek emateagatik, komisarioak 4.000€ kontraprestazioa jasoko du (zergak eta atxikipenak kenduta). Zenbateko horren % 50a 2024an jasoko du, egonaldia amaitu eta aurreproiektua entregatu ondoren; gainerako zenbatekoa 2025ean jasoko du,



erakusketa inauguratu ondoren. Zerbitzuak emateko kontratu horren gainerako eduki zehatza komisarioaren eta Tabakaleraren artean negoziatu eta formalizatuko da, une egokian eta aplikatzekoak diren gainerako kontratazio-arauekin bat etorrira.

## 8. EGONALDIAREN IRAUPENA ETA GARAPENA

Parte-hartzaileak lau aste izango ditu proiektua zehazteko, eta, aste horietan, bere lanari egokitutako jardueretan parte hartu ahal izango du. Egonaldi hori 2024ko apiriletik maiatzera bitartean egin ahal izango da. Egonaldiaren iraupena batzordearekin adostuko da, eta Tabakalerak programazioari dagokionez dituen prestasunaren eta konpromisoen mende egongo da.

## 9. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetara aurkezteak konpromiso hauek onartzea dakar:

- Esleitutako eskaera bat kendu behar bada, hautagaiak denbora nahikoa lehenago jakinarazi beharko du.
- Adostutako datetan justifikaziorik gabe lan-espaziotik kanpo egonez gero, edo egonaldiak oinarrietan adierazitako denbora-tarteak betetzen ez baditu, egonaldia, kasu bakoitzean emandako laguntzak eta erakusketa bera guztiz edo partzialki baliogabetu ahal izango dira.
- Egonaldia bera edo haren inguruan sor daitezkeen jarduerak Tabakalerak egonaldien programaren inguruan garatzen duen programazioan sartuko dira.
- Egonaldian zehar, egoiliarrek parte hartu beharko du Tabakalerak egoiliarren proiektuak ikusarazteko antolatzen dituen jardueretan.
- Tabakaleratik igaro ondoren, egoiliarrek egonaldiari buruzko memoria aurkeztu beharko du.

## 10. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Izena emateko epea 2023ko abenduaren 21ean hasi eta 2024ko otsailaren 2ko 12:00etan (eguerdian) amaituko da [UTC+ 1]. Deialdia 2024ko martxoaren 15ean ebatziko da, eta ebazten denetik 15 eguneko epean, Tabakaleraren webgunean eta sare sozialetan argitaratuko da.

Izen-ematea Tabakaleraren web-orrian egin beharko da, eta horretarako, online formularioa bete eta dokumentazio hau erantsi beharko da, hurrenkera honetan:

1. Harremanetarako datuak: izen-abizenak, helbidea, helbide elektronikoa, telefono-zenbakia eta jaioteguna. Modalitate honetan, ordezkari bakarra esleituko da hautatutako proiektuaren solaskide gisa.
2. Proiektuaren azalpena eta proiektuaren fasea Tabakaleraren egonaldian garatzeko arazoien azalpena (gutxienez 500 hitz, eta gehienez 1000).
3. Proiektua irudi bidez erakusteko material grafikoa edo bestelako materialak.
4. Erakusketa-proiektuaren aurrekontua eta gutxi gorabeherako beharrianak.
5. Beharrianen aurreikuspena eta egonaldian garatu nahi den lan-egutegia aurkeztea.



6. CV-a eta biografia edo sozietatearen historia laburra (500 hitz).

Dokumentazioa agiri bakar batean erantsi behar da, PDF formatuan (gehienez 10 mega, 10 orrialde). Artxiboaren izena eredu hau jarraituz sortuko da: izena\_abizena\_modalitatea; adibidez: sara\_zudaire\_comisariado.

Txostena **gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez** egon behar da; gaztelaniaz edo euskaraz badago, **nahitaez laburpen bat bidali beharko da ingelesez**. Horrela egiten ez bada, epaimahaiak eskubidea du proiektua baztertzeko.

Kolektiboen kasuan, haien guztien aurkezpena egingo da.

## 11. JABETZA INTELEKTUALA

Hautagai eta/edo parte-hartzaile guztiek eta hautatutako onuradunek bermatuko dute (i) bai eskubidea aurkeztean, (ii) bai proiektua oinarri hauen xede diren baliabideekin gauzatzean, Tabakalerari ematen dioten dokumentazioa (grafikoa, testuak eta/edo ikus-entzunezkoa) jatorrizkoa dela eta ez dituela urratzen hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideak. Ondorioz, material horiek direla-eta hirugarrenek jabetza intelektualari buruzko erreklamazioak aurkezten dituztenean, Tabakaleraren aurrean eta/edo Tabakaleraren laguntzaileen aurrean erantzungo dute, eta halako kontzeptuengatik erreklamazioak aurkezteak kalte-galerak badakarzkie, haien ordaina eman beharko dizkiete entitate horiei.

Oinarri hauek onartzean, onuradunek baimena ematen diote Tabakalerari emandako dokumentazio grafikoa, testuala eta/edo ikus-entzunezkoa erabil dezan, edozein euskarritan, soil-soilik oinarri hauen xede diren zuzkidurak ezagutarazteko eta haiekin hornitutako proiektua gauzatzeko.

Aurreko guztiak ez ditu eragotziko egile-eskubide moralak, ez eta aipatutako testu-dokumentazioaren, grafikoaren eta/edo ikus-entzunezkoaren gaineko jabetza intelektualeko ondare-eskubide guztien titulartasuna ere; izan ere, eskubide horiek dagozkion onuradunenak izaten jarraituko dute.

## 12. DATU PERTSONALEN BABESA

Hautagaiei eta/edo parte-hartzaileei jakinarazten zaie ezen oinarri hauek onartzean baimena ematen diotela Tabakalerari ematen zaizkion datuak erabil ditzan; batetik, eskaera aurkezteko unean ematen dizkieten datu pertsonalak, eta, bestetik, hautatuak izanez gero, oinarri hauen xede diren baliabideekin hornitutako proiektua garatu bitartean ematen dizkietenak, eskaera izapidetu eta kudeatzeko, emandako zuzkidurak erabiltzeko eta zuzkidura horiekin hornitutako proiektua ezagutarazteko.

Datu pertsonal horiek erakunde eta/edo organismo publikoei jakinaraziko zaizkie, baldin eta legezko betebeharra badago datuak jakinarazteko. Era berean, eta II. klausulan ezarritakoari jarraituz, zuzkiduren onuradunen irudia eta izena hirugarrenei jakinarazi ahal izango zaizkie, Tabakalerak oinarri hauen xede diren zuzkidurak hedatzeko eta haiekin hornitutako



proiektuak gauzatzeko erabiltzen dituen komunikazio-sistemen bidez eta edozein euskarritan.

Testuinguru horretan, aditzera ematen da beharrezkoa dela datu pertsonal horiek aurkeztea, eta, beraz, datu horiek eman ezean, laguntza-eskaerari uko egingo zaio eta ezin izango du deialdian parte hartu.

Hautagaien eta/edo parte-hartzaileen datu pertsonalak gordeko dira hautagaitza baloratzeko eta, hala badagokio, zuzkiduren emakida eta gozamina kudeatzeko beharrezkoa den denboran; era berean, Tabakaleraren legezko betebeharrak betetzeko ezarritako epe gehigarrian ere gorde beharko dira datuak.

Nolanahi ere, hautagai eta/edo parte-hartzaileei eta hautatutako onuradunei jakinarazten zaie eskubidea dutela (i) beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, haien tratamenduari mugak jartzeko, datuak transferitzeko eta tratamenduaren aurka egiteko; horretarako, eskubidea bidali beharko dute [pgaraikideak@tabakalera.eus](mailto:pgaraikideak@tabakalera.eus) posta elektronikora; halaber, eskubidea dute (ii) erreklamazioa aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan edo beste kontrol-agintaritzak eskudun batean, bereziki, eskubideak baliatu ezin izan dituztenean.

### 13. IRUDI-ESKUBIDEAK

Oinarri hauek onartuta, hautatzen diren onuradunek berriazko baimena ematen diote Tabakalerari (i) beren irudia baliabide tekniko egokien bidez (argazkia, bideoa, etab.) erregistratzeko, eta (ii) irudi horiek eta izena Tabakaleraren web orrian eta/edo Tabakaleraren kontrolpeko edo hirugarren laguntzaile batzuen kontrolpeko beste edozein euskarritan (ukigarriak edo ukiezinak) erabiltzeko eta erreproduzitzeko, oinarri hauen xede diren laguntzak ezagutarazteko eta haiekin hornitutako proiektuak gauzatzeko helburuarekin. Baimen hori ezeztagarria da.


### 14. OINARRIAK ONESTEA

Parte-hartzaileek, deialdian aurkezte hutsagatik, oinarri hauek onartzen dituzte.

**Info +:** [pgaraikideak@tabakalera.eus](mailto:pgaraikideak@tabakalera.eus)

[www.tabakalera.eus](http://www.tabakalera.eus)

# ANEXO I



ESPACIO 4 PARETA



# 4 PARETA

